

Gaztelekuetan euskararen erabilera sustatzen

HEZITZAILEENTZAT GIDA

AURKIBIDEA

- Euskararen erabilera Gaztelekuetan: Zergatik sustatu? Zer hartu kontuan?
- Helburuak eta oinarrizko estrategiak
- Jarduerak eta tresnak
- Egoera zehatzak eta zalantzak

Nerabeen onurarako izango da gaztelekuetan euskararen erabilera sustatzea. Erabilera sustatzearen ardura hezitzaileok dugu; guk lagundu behar diegu euskara erabiltzen eta horretan gustura aritzen. Horretarako, Hezitzaile Berritsuak izaten ahalegindu behar dugu eta jardueraren uneak zein guneak baliatu ditzakegu tresna lagungarri moduan.

*Ebete hizkuntza-zerbitzuak
2023ko otsailean*

EUSKARAREN ERABILERA GAZTELEKUETAN: ZERGATIK SUSTATU? ZER HARTU KONTUAN?

- Zergatik sustatu euskararen erabilera gaztelekuetan ?
- Zein oinarri hartu abiapuntu moduan?
- Nola uztartu beste bi zehar lerroekin?

Zergatik sustatu euskararen erabilera gaztelekuetan?

Euskara eskolaz kanpo erabiltzeko benetako aukerak eman behar dizkiegu eta hizkuntzarekin harremana zaindu behar dugu.

Gizartea gero eta elebidunagoa da. Azken hamarkadetan ahalegin handia egin da norabide horretan eta gaur egun haur zein nerabe gehien gehienak bi hizkuntzak ikasten ari dira, elebidunak izatera iritsiz.

Baina bai elebitasunera begira eta, batez ere, erabilera soziala indartzera begira, haurrei eta nerabeei eskolaz kanpo euskara erabiltzeko benetako aukerak eman behar zaizkie. Egun, hainbaten eta hainbaten kasuan, aukera hori mugatua da eta horrek eragina du gaitasunetan zein jarreretan.

Hau da:

- Erraztasun handiagoa baldin badute gaztelaniaz, ohikoa da gaztelaniarako joera izatea beraien harremanetan. Beraz, euskara erabiltzen laguntzen badiegu, gero eta gaitasun hobea izango dute hizkuntza horretan ere.
- Haur garaietatik beraien arteko harremanetan gaztelaniarako joera izan duten nerabeen kasuan, beraien arteko harremanak eta hizkuntza ohiturak gaztelaniaz finkatuta dituzte. Honek ondorio bat du: eskolaz kanpo euskara erabiltzea eta, bereziki lagunartean euskara erabiltzea, arrotza edo arraroa egiten zaie askori. gaztelekuetan euskararen erabilera sustatuz gero, edozein egoeretan eta edozein harremanetan euskaraz eroso aritzeko gai izan daitezen lagunduko diegu.

- Euskaraz ikasi arren eskolaz kanpo euskararekin harreman gutxi baldin badute, horrek eragina izango du beraien jarreretan: euskararekiko harremana zaintzen lagundu diezaiekegu gaztelekueetatik. Noski, harreman horrek positiboa izan behar du eta erabiltzen ditugun estrategietan hau kontuan izan behar dugu.

Bide honetan aurrera egitea gizarte osoaren eta bereziki haur eta nerabeen onurarako izango da, hizkuntzen berdintasunean eta justizia sozialean aurrera egingo baitugu. Hizkuntza batean zein bestean eroso eta seguru aritzeko gai izatera iristen badira, gizartean bizitzeko zein norbere burua garatzeko oinarrizko tresnak eskuratzen lagunduko diegu eta, hori, norberarentzat onuragarria izateaz gain gizarte osoarentzat ere onuragarria bada.

Zein oinarri hartu abiapuntu moduan?

Hezitzaileon arduraz eta jarreraz ari gara, Hezitzaile Berritsuak izan behar dugu.

Hezitzaileon ardura da euskararen erabilera sustatzea. Guk nahi dugu beraiek euskara asko eta gustura erabiltzea eta, beraz, horretan lagundu behar diegu. Nerabeen jokabideak ulertu behar ditugu eta argi izan gaztelaniarako joera ez dela ez ona ez txarra baina guk euskara erabiltzen lagundu nahi diegula.

Bide horretan, Hezitzaile Berritsuak izaten ahalegindu beharko dugu: elkarrizketa asko sortu eta bideratzeko ahalegina eginez –banakoekin eta elkarren artekoak–. Jarrera horretatik abiatuz, jardueraren uneak eta guneak baliatu ditzakegu euskararen erabilera indartzeko eta horretan gustura aritu gaitezke.

2– HELBURUAK ETA OINARRIZKO ESTRATEGIAK

- Erabilera sustatzea eta hezitzaileen ardura
- Helburu orokorretatik helburu zehatzetara: Zein da gutxieneko helburua?
- Oinarrizko estrategiak eta prozedurak

Erabilera sustatzea eta hezitzaileen ardura

Beraien artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin lagundu behar diegu eta horretan gustura aritu daitezen lortu.

Euskararen erabilera sustatzen ahalegintzea garrantzitsua da, partaideentzat onuragarria izanik. Baina erabilera sustatzeaz ari garenean argi izan behar dugu zein den hezitzaileen ardura. Hori argi badaukagu, zer eta nola egin ere argiago ikusiko dugu.

Zein da hezitzaileen ardura?

- Parte hartzaileek hezitzaileekin harremana euskaraz izan dezaten laguntzea.
- Beraien artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin laguntzea.
- Euskararekin bizipen positiboak izan ditzaten laguntzea.

Gaztelekuaren testuinguru soziolinguistikoaren arabera, erabilera helburuak bat edo beste izango dira, baina gaztelekuetako hezitzaileen ardura berdina da kasu guztietan.

Agian gustatuko litzaiguke nerabeen arteko harremana euskaraz izatea baina hori lortzea ez da hezitzaileen ardura. Testuinguruaren arabera helburu hori handiegia izan daiteke euskararen erabilera sustatzera begira gaztelekuak mugak dituelako: gazteek jardueran ematen duten denbora mugatua da eta hezitzaileen eragina ere mugatua da (partaide kopurua handia izaten da tarte batzuetan, jolas librean ere aritzen dira, eta abar).

Hainbat neraberi eskolaz kanpo euskaraz egitea arrotza egiten zaie. Beraien testuinguruan gaztelania baita nagusi (eta askorentzat beste hizkuntzaren bat ere bai), eta elkarri euskaraz egiteko ohiturarik ez dute. Beraz, ez dute benetako aukerarik euskara erabiltzeko. Horretan laguntzen badiegu, euskaraz aritzeko gaitasuna ere hobetuko dute eta hori beraien onurarako izango da: bai ikasketetarako baina, batez ere, bi hizkuntza ofizial dituen gizarte batean gizarteratzeko eta bi hizkuntza horiek edozein egoera zein harremanetan erabiltzeko gai izatera iristeko.

Are gehiago, hainbatek euskara eskolarekin soilik lotzen dute eta euskarazko bizipen gutxi dituzte. gaztelekuen izaera ludikoak horretan ere lagundu dezake: euskaraz bizipen positiboak eskaintzen badizkiegu, euskararekin duten harremana hobetzen da eta horrek eragina du jarreretan zein jokabideetan.

Helburu orokorretatik helburu zehatzetara: Zein da gutxieneko helburua?

Gutxieneko helburu bat zehaztu behar dugu eta hori izango da estrategia egokiak aukeratzeko abiapuntua.

Hauek izan daitezke helburu egokiak:

- Hezitzaileekin harremana euskaraz izatea.
- Partaideen artean euskaraz egitea hezitzaileok beraiekin elkarrizketatan ari garenean.
- Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean. Honen baitan bi maila egon daitezke:
 - Jarduera babestu edo antolatuetan.
 - Edozein egoera eta tartetean.

Hurrenkera horretan oinarrituz, gaztelekurako gutxieneko helburua finka dezakegu. Testuinguru soziolinguistikoa eta egungo errealitatea hartu behar dira oinarri moduan, helburuak lorgarria izan behar duelarik: batzuetan erraz lortzeko modukoa izango da eta beste batzuetan, aldiz, kosta egingo da: baina lorgarria izan behar du derrigorrean. Hezitzaileon jarrera eta erabili beharreko estrategiak zein tresnak helburu horrekin lotu behar ditugu.

Kasu bereziak ere emango dira baina horietan ez da aldatuko gutxienerako helburua. Hala ere, helburua eta prozedurak adostu beharko dira.

Komenigarria da gaztekurako gutxienerako helburu bat zehaztea: helburu orokorretatik zaila baita estrategia egokiak eta hezitzaileok hartu beharreko jarrera zehaztea. Helburu moduan *euskararen erabilera sustatzea* jartzen badugu, ez dugu argi ikusten arautzea egokia ote den, erabiltzera behartu behar ditugun, beraiek nahi dutena egiten utzi behar ote diegun eta neurgailurik ere ez dugu lorpenak ikusteko. Ondorioz, askotan etsigarria izaten da hezitzaileon lana: buruan badugu gutxi gorabeherako helburu bat, hainbatetan gehiegizkoa, eta zaila egiten zaigu jarrera eta sententzio positiboetatik lan egitea.

Egoera	Gehienek ez digute beti euskaraz egiten eta gu beraiekin ari garenean zaila da beraien arteko elkarrizketak euskaraz izatea.	Gehienek beti euskaraz egiten digute baina gu beraiekin ari garenean kostatzen da egiten da elkarrizketak euskarara eramatea.	Euskaraz egiten digute eta gu beraiekin ari garenean euskaraz egiten dute baina beraien kabuz ari direnean hainbati kostatzen zaie euskara mantentzea.
Gutxienerako helburua	-Gurekin harremana euskaraz izatea -Beraien artean gure eraginez euskaraz egitea gutxienez egoera antolatuetan.	-Gurekin harremana euskaraz izatea -Beraien artean gure eraginez euskaraz egitea -Egoera babestuetan beraien kabuz euskara mantentzea ohikoa izatea.	-Beraien kabuz euskara mantentzea gutxienez egoera antolatuetan.

Oinarrizko estrategiak eta prozedurak

Oinarrizko estrategia hezitzaileok hartu beharreko jarrerari buruzkoa da eta jarrera hori prozedura zehatz batekin lotu dezakegu.

Oinarrizko estrategia: Hezitzaile Berritsuak izatea.

Prozedura: ahalegina eskatzea, laguntzea eta ahalegina baloratzea.

Hezitzaile Berritsuak: elkarrizketa asko sortzen eta bideratzen dituzten hezitzaileak dira –banakoekin eta beraien artekoak-. Zenbat eta elkarrizketa gehiago sortu eta zenbat eta elkarrizketa gehiagotan parte hartu, orduan eta gehiago lagunduko diegu euskara erabiltzen. Hori da gutxieneko helburura hurbiltzeko bidea.

Hezitzaile Berritsu moduan ari garenean erabiltzeko prozedura:

- Ahalegina eskatuko diegu: euskara erabiltzeko ahalegina egitea nahi dugula azalduko diegu. Horri begira, mezu egokiak erabili behar dira.
- Laguntza eskainiko diegu: zailtasunak dituenari lagundu egingo diegu euskaraz aritu dadin.
- Ahalegina baloratuko dugu: errefortzu positiboak emango dizkiogu zailtasunak dituenak euskaraz adierazteko ahalegina egiten badu, beraien artean euskaraz egitea lortzen badugu nahiz eta horretarako gure eragina beharrezkoa izan, eta abar.

Ahalegina eskatzen	Laguntza eskaintzen	Errefortzuak ematen
Nahiago nuke euskaraz egingo bazenit. Ziur euskaraz ere primeran egiten duzula.	Zuk lasai esan. Ez arduratu eta zerbait ez badakizu nola esan nik lagunduko dizut.	Ederki egiten duzu euskaraz ere! Bai horixe!
Zuen gustukoa den jarduera hau egingo dugu orain. Baina nahi nuke euskaraz egitea. Pixka bat ahalegindu zaitezte. Ados?	Ni ere zuekin arituko naiz. Badakizue honetan oso ona naizela! Eta seguru euskara erabiltzeko ere nire presentzia lagungarria izango dela.	Oso ondo aritu zarete. Eta euskara asko entzundut gainera. Oso pozik nago.

3- JARDUERAK ETA TRESNAK

- Gaztelekuaren espazioan bertan:
 - Jardueraren uneak eta guneak baliatzea
 - Jarduerak egokitzea
 - Tresna lagungarriak
 - Motibazioa lantzeko jarduerak
- Gaztelekuaren espaziotik kanpo

Jardueraren uneak eta guneak baliatzea gaztelekuaren espazioan:

Euskararen erabilera indartzeko lagungarria da jardueraren une eta gune ezberdinetan Hezitzaile Berritsu moduan nola jokatu aurreikustea eta planifikatzea.

Jardueraren uneak eta guneak baliatu daitezke Hezitzaile Berritsu moduan jokatuz erabilera helburuetara iristeko.

- Harrera: banakoekin elkarrizketa sortzeko aproposa. Batzuetan elkarrizketa oso laburrak izango dira baina hezitzaileak aukera ikusten duenean nahiko elkarrizketa luzeak ere sortu daitezke eta egoera aproposak dira prozedura erabiltzeko.
- Jarduera dinamizatua: beraien arteko hainbat elkarrizketa euskaraz izan daitezen lortzeko egokia. Jarduera dinamizatuan hezitzailearen rola oso aktiboa da eta elkarrizketa asko sortu edo bideratu ditzake.

Ezingo dugu guztiekin eta etengabe saio osoan zehar Hezitzaile Berritsu moduan aritu. Baina argi izan behar dugu hori dela euskara gustura erabiltzen laguntzeko bidea eta jardueraren uneak zein guneak baliatzea bide eraginkorra dela.

Harrera	Jarduera dinamizatua	Kiroletan
Kaixo. Atzo lokalean ospatu behar zenuten urtebetetzea, ondo? Zer oparitu zenioten Leireri? ...	Sukaldaritza tailerra tokatzen zaigu gaur. Norbaitek egin du noizbait Hummusik? Zure etxean bai? Nola egiten duzue, ziur gure errezeta baina goxoagoa dela, esan-esan! ...	Mahai tenis txapelketa abian da! lazkoa oso erraza izan zela ikusirik, aurten arauak zaildu ditugu: bikotekide batek esku bat bizkarrera lotuta izango du eta besteak, berriz, puntua balekoa izateko, piropo bat bota beharko dio parekoari. Zer iruditzen? Beste proposamenik bai? Osatuko dugu denon artean euskarazko piropo zerrenda? Zer bururatzen zaizue?...

Jarduerak egokitzea gaztelekuaren espazioan:

Jardueretan irizpide batzuk kontuan hartuta, errazagoa da egoera horietan erabilera indartzea.

- Dinamizatutako jarduerak
- Eguneroko errutinak
- Dinamika eta jolasetako hizkuntza-errutinak
- Hizkuntza-jolasak

- **Dinamizatutako jarduerak:** hezitzaileak dinamizatzen dituen jardueretan, prozedura bat kontuan hartzen bada, errazagoa da beraien artean euskara erabil dezaten laguntzea. Honakoa da prozedura hori:
 - Ahalegina eskatzea: tarte horretan euskara erabiltzeko ahalegina ikusi nahi dugula azalduko zaie nerabeei, eta hezitzaileok lagunduko diegula.
 - Beraien artean hizkuntza-erabiltzea ezinbestekoa izatea: jarduera egokitu behar da hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izan dadin. Beraien artean zerbaitetaz hitz egin behar dute, hitz egindakoa beste batzuei azaldu behar diete, eta hori guztia idatzi gabe egin behar dela.

- Gure eraginez laguntzea: beraien kabuz aritu behar dute, eta hezitzaileak parte hartze aktinboa izango du jarduerarekin lagunduz eta elkarrizketa askotan parte hartuz. Horretan ari denean batzuetan beharrezkoa izango da berriz ere ahalegina eskatzea eta errefortzu positiboak ematea ere lortu behar da.

Dinamizatutako jarduerak
1.- Jarduera azaltzea: <i>“datorren hilabetean txango berezi bat egingo dugu baina ez dugu erabaki nora. Denon artean aukeratu behar dugu. Guk aukera hauek ikusten ditugu: hondartza, Txuri Urdin, Topic, Izarraitz. Talde bakoitzak bat aukeratu behar du eta zergatik aukeratzen duzuen hori ondo pentsatu besteei azaltzeko, eta besteak eta gu konbentzitzeko”.</i>
2.-Ahalegina eskatzea: <i>“nahiko genuke horretan ari zaretenean euskaraz egitea. Badakizue nahi dugula zuek euskara asko erabiltzea, eta tarte honetan behintzat ahalegindu”.</i>
3.- Jardueraren lehen zatia: taldeka ideiak lantzen ari direnean hezitzaileak taldez talde ibiliko gara galdetzen eta ideiak ematen. Gure parte hartze zuzenarekin elkarrizketak euskaraz izan daitezzen lagunduko diegu. Beharrezkoa bada, ahalegina eskatuko diegu taldetxoei.
4.- Jardueraren bigarren zatia: talde bakoitzak besteei aukeratutakoa eta arrazoiak azaldu behar dizkiete. Moderatzaile bat jar dezakegu eta guk laguntzaile papera hartu. Bozketa moduko batekin amaitu daiteke.
5.- Ahalegina baloratzea: dinamika bera baloratuko dugu, eta bereziki euskararen erabileran ikusi dugun ahalegina. <i>“Primeran aritu zarete. Guztion artean txangoa aukeratu dugu. Eta oso pozik gaude euskara asko entzun dugulako eta badakigulako batzuek erdaraz askoz errazago egiten duzuela. Oso ondo.”</i>

Gaur egun gaztelekuan dinamizatuak diren jardueretan prozedura hau erabili ahal izateko zein aldaketa egin behar diren aztertu daiteke. Edota, horretaz gain, programazioa lantzen denean ezaugarri hauek izan ditzaketen jarduerak aukeratu edo sortu.

- **Eguneroko errutinak:** egunero (eta maiztasun batekin) errepikatzen diren egoeretan hizkuntza-errutinak txerta ditzakegu. Tresna lagungarria da euskararen presentzia bermantzeko eta egoera horien inguruko elkarrizketak euskaraz izan daitezzen laguntzeko.

Harrera	Txanda aldaketa
<p>Hezitzailea beti galdera berarekin hasiko da: <i>Arratsaldeon! Eman bostekoa!</i> Beti erantzun bera eskatuko diegu: <i>Hemen bostekoa! Arratsaldeon!</i></p> <p>Une horretatik aurrera hezitzaileak erabakiko du elkarrizketa luzatzea Hezitzaile Berritsu moduan jokatzuz edo bere horretan uztea.</p>	<p>Bideojokoekin aritzeko aukera dute batzuetan baina askok nahi izaten dutenez, txandak antolatzen dira. Txanda hartzen duenak, beti modu berean eskatu behar du: <i>Adi! Ordua da! Nire txanda!</i> Besteak momentuan utz dezake edo bost minutu gehiagoz aritzeko aukera izango du errutina hau betetzen badu: <i>Bai! Baina zure txanda izango da bost minutu barru.</i> Horren ondoren, azken esaldia erabiliko dute: <i>Kitto! Amaitu da denbora. Bost minutuak ere bai.</i></p>

- **Dinamika eta jolasetako hizkuntza-errutinak:** eguneroko errutinen moduan, dinamika eta jolas gidatuetan ere txertatu ditzakegu hizkuntza-errutinak. Modu horretan, egoera horietan euskararen gutxieneko presentzia bermatuko dugu eta errazagoa izango da elkarrizketak euskaraz izan daitezen laguntzea.

Errelebo jolasa	Brile jolasa
<p>Errelebo jolasean, erreleboa ondo eman dela baloratuko da, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskuan zapla eman badio • Eta hori egiterakoan bi esaldi hauek ozen esaten badituzte: <i>Nik egin dut. Zure txanda! Eta besteak: Banoa ziztu bizian!</i> 	<p>Baloia botatzen duenak, beti, esaldi bera esan behar du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Baietz eman!</i> <p>Besteek, nahi badute esango dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ezetz eman!</i> <p>Emanez gero, etxera joatea nahi bada, hau esan behar du baloia bota duenak (bestela ez da joango):</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Eman dizut. Etxera!</i>

- **Hizkuntza-jolasak:** hizkuntza bera ardatz duten dinamika edo proposatu ditzakegu, hau da, jolasa egiteko ezinbestean hizkuntza erabili behar da. Gustukoak badituzte, beraien kabuz ere erabiliko dituzte.

Maite zaitut!	Boterik gabeko pilota
<p>Zutik borobilean jarri. Borobilaren erdian pertsona bat geratuko da eta taldeko edozeinen aurrean jarrita esango dio:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Maite zaitut! - Zergatik? - Galtza luzeak daukazulako! <p>Une horretan, borobileko galtza luzedun denek euren lekua utzi eta beste bat bilatu beharko dute, baita erdian zegoenak ere. Erdian lekurik gabe geratu denak, jolasari ekingo dio berriz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Maite zaitut! - Zergatik? - Ile motza daukazulako. <p>Errutinak aldatzen joan gaitezke: Mugi zure lekutik, zergatik? begi urdinak daukazulako! / Zurekin tematu naiz! Zergatik? kamiseta beltza daramazulako!...</p>	<p>Baloia duenak norbaiten definizioa emango du: <i>praka gorriak dauzka eta saskibaloian oso ona da!</i> eta baloia gora botako. Definitua izan dena baloia botea eman aurretik jasotzen saiatuko da. Boterik gabe hartzen badu: <i>denak geldi!</i> esan eta dagoen tokitik hiru pauso emanaz, norbait baloiaz joko du. Jotakoa jokuz kanpo geratuko da. Baloia botea eman ondoren hartzen badu, ordea, beste norbaiten definizioa eman, baloia gora jaurti eta aurrera jarraituko du jokuak, irabazle bat atera arte.</p>



Tresna lagungarriak:

Oinarrizko irizpideez gain eta jarduerak egokitzeaz gain, tresna lagungarriak izan daitezke beste hauek ere:

- Abestiak edota abestutako leloak
- Musika
- Hizkuntza-paisaia
- **Abestiak edo abestutako leloak:** hezitzaileok asko abestea eta nerabeekin abestea. Hizkuntzaren presentzia zaintzeko bide bat da eta hizkuntza erabiltzeko eta barneratzekoa ere bai. Abestutako leloak ere oso erabilgarriak dira, hots: hizkuntza-errutina modukoak baina abestuz egiten direnak.
- **Musika:** hainbat egoeretan musika ere jar dezakegu. Hizkuntzaren presentzia zaintzeko modu bat da eta, horrekin batera, nerabeek abesti ezberdinak ikas ditzakete baita talde ezberdinak ezagutu ere. Interesgarria da nerabeei euskarazko musika erreferente eta estilo ezberdinak proposatzea eta ezagutaraztea.
- **Hizkuntza-paisaia:** kartelak, arauak eta abar. gaztelekuan paretetan jartzen diren esaldiak. Tresna lagungarria izan daiteke asko erabiltzen badugu, erreferentzi egiten badiegu eta maiz aldatzen baditugu.

Motibazioa abiapuntu edo helburu duten jarduerak:

Gida honetan proposatzen diren oinarrizko estrategietan eta jardueretan, hezitzailearen zeregina da garrantzitsuena.

Horrez gain, nerabeen euskararekiko motibazioa abiapuntu edota helburu moduan hartuz, beste tresna batzuk ere erabil daitezke.

Euskararen erabileran eragitera begira ez dira tresna nagusiak, osagarriak baizik, baina euskararekin harremana indartzera eta hobetzera begira baliagarriak izan daitezke.

Bi moduko jarduerak proposatzen dira:

- Euskara erabiltzeko ahalegin kontzientea adostea
- Erabilera bultzatzen duten faktoreetan eragiteko jarduerak egitea

Euskara erabiltzeko ahalegin kontzientea egiteko erabilera adostea: nerabeen euskararekiko gutxieneko jarrera bat hartzen da abiapuntu moduan eta, erabilera indartzeko lagungarria den arren, motibazioa indartzea da helburu nagusia. Bi modutara egin daiteke:

- Helburu txikiak adostea jarduera bati lotuta
- Helburu nahiko handiak adostea denbora tarte bati lotuta

Helburu txikiak adostea jarduera bati lotuta	Jarduera antolatu bat egiterakoan, helburu txiki bat adostu daiteke beraiekin. Adibidez: ahaleginduko direla tarte horretan guztia euskaraz egiten.
	Denbora tarte nahiko labur baterako lorgarria den helburua jarri behar da.
	Hezitzaile Berritsu moduan jokatu behar da: adostu dugun helburua da eta, beraz, zailtasunak izan ditzakete lortzeko. Erdaraz ari badira, kargu hartu baino Hezitzaile Berritsu moduan jokatu: tartean sartu eta elkarrizketa bideratu, ahalegina eskatu...
	Helburua erabat lortu edo ez, ohikoa baino euskara gehiago erabiltzen ahalegindu badira, errefortzuak eman: zoriondu, animatu...
<i>“Lehen goan pozik eta arro amaitu nuen. Konturatu nintzen euskara erabiltzeko ahalegina egin zenutela eta, gainera, ondo pasa zenutela horretan. Gaur ere antzeko ekintza bat proposatu nahi nizuen: denon artean, material birziklatua erabiliz, instrumentu batzuk egingo ditugu. Baina 20 minutu besterik ez ditugu izango. Hori da erronka! Eta bigarren erronka hau da: tarte horretan guztia euskaraz egiten saiatzea. Prest? Saiatuko zarete? Nik lagunduko dizuet!”</i>	

Helburu nahiko handiak adostea denbora	Euskara gehiago erabiltzeko kanpaina moduko bat egitea. gaztelekuko partaideek euskararekiko jarrera nahiko positiboa dutela iruditzen bazaigu, epe zehatz batean barruan euskara gehiago erabiltzeko ahalegin kontzientea egitea proposatu diezaiekegu.
	Denbora tarte nahiko luzeetarako proposamena izan daiteke: egun bat, aste bat, hilabete bat... Gehiegizko helbururik ezin da jarri baina

tarte bati lotuta	ahalegin nabarmena izan behar du beraientzat: gaztelekuan dauden denbora guztian euskaraz egitea edo, hori gehiegizkoa bada, hilabete batean zehar gaztelekuko jarduera edo gune jakin batean dena euskaraz egitea...
	Girotze lana egin behar da: erronka moduan proposatuko zaie eta giro egokia sortu behar da erronkaren inguruan. Adibidez: kartelak jarri, pinak edo pegatinak erabili, askotan gogorarazi... Zenbat eta ikusgarriagoa, hobe.
	Saio bakoitzean ebaluatu behar da: saio bat baino gehiagoko jarduera denez, saio bakoitzean gogorarazteaz gain ebaluatu ere egin behar da. Taldean ebaluatzea izan daiteke interesgarriena: lorpenak, zailtasunak, hurrengo urratsak, erronka lortzeko falta den ahalegina neurtzea, eta abar.
<p><i>Euskalakarrien bidaia: Korrika egiten den garaian, 2 aste horietan, gaztelekuan guztia euskaraz egitea proposatuko diegu. Are gehiago, Korrika herritik pasatzen denean elkarrekin joango gara eta tarte horretan ere ahalegindu behar dute euskaraz guztia egiten. Saio bakoitzaren amaieran ahalegina baloratuko dugu beraiekin batera eta ahalegin horri kilometroak emango dizkiogu: guztia euskaraz egin badute edo behintzat asko hurbildu badira 10 kilometro, ahalegindu badira baina ez badute denbora gehienez lortu 5 kilometro eta ez badira ahalegindu 0 kilometro. Korrika amaitzean zenbat kilometro dituzten kontatuko da. Distantzi horren barruan txango bat egiteko lekua aukeratzen utziko diegu. Beraz, asko ahalegindu badira, nahiko urrutira ere izan daiteke.</i></p> <p><i>Kanpaina egiten dugun bitartean girotze lan handia egingo da eta Hezitzaile Berritsu moduan jokatzear gain, ahalegina askotan gogoraraziko diegu.</i></p>	
<p>Oharra: oso argi izan behar dugu modu honetako jarduerekin ez ditugula hizkuntza-ohiturak aldatuko. Ez da hori helburua, gainera. Epe zehatz baten barruan beraiek euskara gehiago erabiltzeko ahalegin kontzientea egitea nahi dugu eta ahalegin hori sententzio positiboekin lotzea. Izan ere, euskararen erabilera bizipen positiboekin lotzeak eragin zuzena baitu euskararekiko jarreretan.</p>	

Erabileran eragiten duten faktoreetan eragiteko jarduerak egitea

Soziolinguistika Klusterrak *Gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* egin zuen eta hortik gida bat ere sortu zen *Erabileraren GPSa* deiturikoa (2011). Gaztelekuetan, erabileran eragiten duten faktore horiek kontuan hartuz hainbat jarduera edo ekimen antolatu daitezke.

Gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreak
Ama-hizkuntza: etxetik euskara jasotzea.
Ingurune hurbila: euskara asko entzuteko eta erabiltzeko aukera izatea etxean, ingurukoekin, kalean...
Bakoitzaren jarrerak: euskararen aldeko jarrera izatea edo ez.
Hizkuntza-gaitasuna: dakiten hizkuntza bakoitzean duten erraztasuna. Adb: euskalkian aritzeko gai izatea, lagunarterako erregistro aberatsa edukitzea...
Identitate kolektiboa: norbera ibiltzen den giro eta taldeetan euskararen aldeko jarrerak ikustea, euskara asko erabiltzen den gune edo jardueretan beraien burua eroso ikustea...
Harreman sareetako hizkuntza-arauak: norbera ibiltzen den harreman sareetan euskarak leku handia izatea, euskararen erabilera zaintzen dela ikustea, hizkuntza-arauak aldatu daitezkeela eta eragile izan daitezkeela jabetzea...
Pertsona eta talde erreferenteak: euskarazko erreferente asko izatea, bai pertsonai ezagunak (musikariak, kirolariak...) baita gertukoak ere (helduagoak diren herriko gazteak, hezitzaileak...).
Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: euskara balio indartsu eta erakargarriekin ere lotzea (modernoak, indartsuak, etorkizuenkoak...).
Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa: euskara eskolarekin soilik ez lotzea, inguruan gero eta euskaldun gehiago dituztela ohartzea, euskara leku eta egoera askotan erabil daitekeela eta gero eta gehiago erabil daitekeela ohartzea...
Kontsumo eskaintza: produktu eta zerbitzuak euskaraz eskura izatea (musika, eskola orduz kanpoko jarduerak, aldizkariak...).
Input mediatikoa: komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuak.
Testuinguru politikoa: legeak, testuinguru horietatik jasotzen ditugun mezuak, zerbitzu eskaintza...

Txikiak direnetik faktore horiek guztiak beraiengan eragiten ari dira: sozializazio prozesuan hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da. Horrek eragina du erabileran baina baita jarreretan ere: euskararekiko jarrerak onak izango dira euskara balio indartsuekin lotzen badute, erreferente asko badituzte, inguruan asko entzuten badute, eta abar. Aldiz, ahulak izango dira horrek guztiak huts egiten badu.

Gaztelekuetan hori kontuan har daiteke eta bi bidetatik garatu:

- Gaztelekutik antolatzen diren jarduerak aztertzen baditugu, nolako eragina dute faktoreen ikuspegitik? Zein faktoretan eragiten dugu? Jardueren ezaugarriak zainduz lor dezakegu faktore gehiagotan eragitea?
- Gaztelekuko programazioan txertatu ditzakegu faktoreetan eragitea helburu duen jarduerarik?

Erabileran eragiten duten faktoreetan oinarritutako jarduerak eginez ez da zuzenean euskararen erabileran eragiten baina bai euskararekiko jarretan.

Gaztelekuan antolatzen diren jarduerak faktoreen ikuspegitik aztertzen.	Jarduera antolatuen bidez eragiten al da faktoreen batean/batzuetan? Zeintzutan? Zein jardueren bidez?
	Jardueretan aldaketa txikiak sartuz, eragin al daiteke faktore hauetan?
Adibidez: jardueran zehar musika jartzen da. Musika beraiek aukeratzen dute. Ez dute inoiz euskaraz jartzen. Aukera: musikaren aukeraketan hezitzaileok ere parte hartzea eta euskarak tarte duina izango duela bermatzea (agian beraiekin adostea). Euskarazko musika jartzerakoan aniztasuna bilatzea eta bereziki gaur egungoa jartzea. Modu horretan bi faktoretan eragingo dugu: erreferenteak (euskal taldeak) eta hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa (euskaraz gauza asko eta oso ezberdinak sortzen direnaz jabetzea).	

Gaztelekuan programazioan faktoreetan eragitea helburu duten jarduerak txertatzea	
Gaztelekuko espazioan	<ul style="list-style-type: none"> • Faktore ezberdinen inguruko hausnarketak egin daitezke jolas eta dinamiken bidez. • Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informalaren inguruan behaketak egitea, euskarazko esamoldeak proposatzea eta hizkuntza-jolasak egitea. • Erreferenteak: euskarazko abesti gustukoena aukeratzeko lehiaketa egitea eta talde horrekin lotutako norbait ekartzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Kontsumo eskaintza: euskarazko aldizkarietara harpidetzak egitea, herrian edo inguruan euskaraz diren ekitaldien berri ematea, euskarazko telebista programa edo interneteko webguneei buruzko informazioa eskaintzea edo horien inguruan ekintzaren bat antolatzea...
Gaztelekuko espaziotik kanpo	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurune hurbila: Gaztelekutik kanpo egiten diren jardueretan euskarazko harremanak izan ditzaten zaintzea. • Identitate kolektiboa: euskaraz diren edota euskararen aldekoak diren jardueretan parte hartzea eta ahal bada nerabeak eragile izan daitezela.

Gaztelekuaren espaziotik kanpo jardueraren guneak eta uneak baliatzea:

Gaztelekuaren espaziotik kanpo egiten diren jardueretan ere, uneak eta guneak baliatu ditzakegu Hezitzaile Berritsu moduan jokatzeko eta euskararen erabilera indartzeko.

- Talde jolasak
- Txangoak (natura, mendia...)
- Beste elkarteekin lankidetzak dinamika

Talde jolasak	<p>Herrian bertan edo txangoetan egiten diren talde dinamika eta jolasetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-errutinak txertatu • Abestiak erabili
Txangoak (natura, kultura, mendia...)	<p>Txangoetan, kontuan izan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezitzaile Berritsuak izan: elkarrizketa asko sortu eta elkarrizketa askotan parte hartu. Hizkuntzari dagokionez hezitzaileek jarrera aktiboa izan behar dute. • Bidaietan musika jarri eta abestu. Aniztasuna bilatzea egokia da: bai estiloetan baita hizkuntzan ere. Euskarak leku duina izatea zaindu daiteke. • Ibilialdietan, hezitzaile berritsuak izan eta, hortaz

	<p>gain, abestu eta abestu dezaten animatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bisita gidatuak eginez gero, aukera dagoenetan, euskarazko bisitak hartu.
<p>Beste herri elkarteekin lankidetzaren dinamikak</p>	<p>Auzoan edo herrian, dena delakoagatik, beste herri elkarte edo zerbitzuekin lankidetzaren dinamikarik antolatuz gero, kontuan hartu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izan erreferente eta Hezitzaile Berritsu gisa jokatu: zerbitzuko erabiltzaileentzat baina baita hiritarren aurrean ere, beti euskaraz aritu eta ahal bezainbat elkarrizketa eragin. Gaztelekua hizkuntza erreferente izan liteke auzo/herri mailan. • Helduekiko harremanetan ere, saiatu ahalik eta euskara gehien erabiltzen eta lehen hitza behintzat, egin beti euskaraz. • Hizkuntza paisaia (errotuloak, musika...) lehenetsi euskara.
<p>Gaztelekutik kanpoko ekintzetan beste hainbat pertsonekin interakzioa ematen da edo eman daiteke. Horietan hezitzaileek ahaleginak behar dute ahal duten guztiak euskaraz izan daitezen: nerabeei lagunduz beste pertsona horiekin harremanak euskaraz izan daitezen (hezitzailea tartean sartuz eta elkarrizketak bideratuz) edota beste horiek pertsona helduak badira eta euskaraz badakite, nerabeei euskaraz egiteko eskatuz. Gogoratu hezitzaileok nerabeentzat erreferente garelako, baita hizkuntza kontuetan ere.</p>	

4- EGOERA ZEHATZAK ETA ZALANTZAK

- Dinamizatu gabeko uneetan ez dute beraien artean euskaraz egiten
- Beraien artean gaztelaniaz ari badira nola jokatu?
- Ez du euskaraz egin nahi
- Ez daki ondo
- Ez daki
- Erabilera arautzea egokia da?
- Akatsak egiten badituzte zuzendu behar ditugu?

Dinamizatu gabeko uneetan ez dute beraien artean euskaraz egiten

Argi eduki zein den hezitzaileen ardura eta zein den jardueraren helburua:

- Ardura: euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diegu.
- Helburua: beraien artean euskara erabiltzea ohikoa izan dadin laguntzea eta erabilera hori sentsazio eta bizipen positiboekin lotzea.

Bi horietan zentratu eta horretan ondo lagundu. Beraz: ez epaitu beraien jokabidea eta ez ebaluatu aukeratu ez den helbururik. Dinamizatu gabeko uneetan erdaraz aritzea ez da ez ona ezta txarra ere. Euskaraz egitea nahi badugu, gidan proposatzen diren tresnak erabiliz lagundu horretan.



Beraien artean gaztelaniaz ari badira nola jokatu?

Laguntzeko prest bagaude, tartean sartu eta elkarrizketa bideratu edo elkarrizketa berri bat sortu. Horretan ari garenean, beharrezkoa ikusten badugu, ahalegina eskatu eta errefortzu positiboak eman. Laburbilduz: Hezitzaile Berritsuak izan.

Ez du euskaraz egin nahi

Komenigarria da jarrera horren oinarrian zer dagoen ulertzea baina horrek ez du gure jokabidea aldatuko.

Jarreraren oinarrian, gehien gehienetan, euskararekiko harreman nahiko eskasa egongo da: ez da euskaraz eroso sentzitzen, komunikazioa oztopatzen diola irudituko zaio, bizipen eta erreferente gutxi ditu, eta abar.

Hori da guk landu behar duguna: euskara erabiltzeko aukerak eskainiz eta horretan lagunduz, euskararekiko harremana garatzen eta hobetzen lagundu nahi diogu.

<i>No me gusta el euskera</i>	<i>Zer egingo diogu ba! Niri asko gustatzen zait. Ziur zuri ere gustatuko zaizula. Lagunduko dizut eskulanarekin?</i>
-------------------------------	---

Ez daki ondo

Partaideren batek edo batzuek euskaraz ondo ez badakite, azalpenak ematerakoan eta erabilera sustatzerakoan hori kontuan izan.

Lagungarriak izan daitezke:

- Arauak bisualki irudikatzea: idatziz egoteaz gain, eta azalpenak emateaz gain, oinarritzko arauak irudi bidez adieraztea egokia da.
- Azalpenak ematerakoan euskarriak erabiltzea: azalpenekin batera hitzak idaztea edo, hobe, marrazkiak egitea.
- Azalpenak behin baino gehiagotan eta modu ezberdinetan ematea. Eta, horretan ari garenean: mimika asko erabiltzea, nahiko mantso hitz egitea eta ondo ahoskatzea.
- Galdera erduekin jolastea: ulertu ote diguten konturatzeko egokia da galdera erduekin jolastea: galdera itxiak eta galdera irekiak. Euskara erabiltzen hasteko modu ona da, gainera.

Galdera jolastea	ereduekin	<ul style="list-style-type: none">• <i>Datorren astean graffiti tailerra egingo dugu. Maskarillak ekarri behar dituzue etxetik (eskuarekin ahoa estaltzearen keinua egingo dugu).</i>• <i>Denak ados? Iñigo: Zer ekarri behar da?</i>• <i>Maskarillak!</i>• <i>Bai. Zerbait gehiago bururatzen zaizue?</i>• <i>Arropa zaharra!</i>• <i>Primeran!</i>
---------------------	-----------	---

Ez daki

Gerta liteke euskaraz ezer ez dakien neraberen bat jarduerara etortzea. Baina kontuan izan: kasu gehien gehienetan kanpotik etorri berriak diren gazteak dira. Euskaraz eskolaratuko dira eta laster hasiko dira ikasten. Beraz, euskara ez jakitetik euskara pixka bat jakiterako prozesu nahiko azkarra egingo dute. Gaztelekuan ere horretan lagunduko diegu.

Lagungarriak izan daitezke:

- Azalpenak mantso eta keinuekin lagunduz ematea. Esaldi laburrak erabili, ulertu ote duen galdetu edo keinu bidez behintzat adierazteko eskaini eta galdera itxiak ere erabili.
- Hiztegi funtzionala (irudiduna) lantzea: Gaztelekuan ohikoak diren esaldiak eta hiztegia landu berarekin. Une ezberdinak erabili horretarako: harreran agurrak, txoko batean aritu behar duenean gune horrekin lotutako lau edo bost hitz, eta abar.
- Hizkuntza-errutinak erabiltzea: egunero errepikatu behar diren esaldi batzuk aukeratu eta erabiltzen hasi. Lehen egunetan guk erabili, ondoren berari ere erabiltzeko eskatu. Euskara erabiltzen hasteko modu bat da eta erabilera horri errefortzu positiboak ematen badizkiegu, arro sentituko direnez, euskararekin harremana lantzeko modua ere bada.

Beharrezkoa ikusiz gero, eman azalpenak gaztelaniaz: bereziki une horretan harreman afektiboa lehenetsi behar dela ikusiz gero -gazteak Zerbitzuan eroso eta gustora sentitzeko behar duelako-. Baina gaztelaniazko azalpenak berari bakarrik eman, ez talde osoari.

Erabilera arautzea egokia da?

Ez da komeni Gaztelekuan erabilera arautzea. Euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diegu. Erabilera arautzen badugu, ardura beraien esku uzten dugu baina guk ez diegu laguntzen.

Jarduera zehatzen batean erabilera arautu daiteke: arauak zehatza izan behar du eta betetzeko modukoa. Gaztelekuko jarduerak planifikatzerakoan gune edo une batzuetan erabilera arautuko ote dugun erabaki dezakegu. Arautzea egokia iruditzen zaigun egoeretan, honakoak ere kontua izan:

- Araua ez badute betetzen zein izango da ondorioa?
- Ondorio hori betearazteko prest gaude?
- Zailtasunak ikusiz gero, nola lagunduko diegu?

Erantzunak argi baditugu, tarte edo jarduera horretan araua txertatzea tresna baliagarria izan daiteke. Zalantzarik badugu, ez arautu.

Gunea:			
Arrazoiak: ahozkoak leku handia hartzen duen gunea da. Jardueran erdaraz hasten badira, Hezitzaile Berritsu moduan ere zaila izango da elkarrizketak euskarara eramatea.	Araua ez betetzearen ondorioa: antzerkiko elkarrizketak euskaraz ez badira, ezin dute mozorrorik erabili.	Ondorioa betearazteko prest gaude? Bai.	Zailtasunen aurrean nola lagundu? Adi ibiliko gara eta zailtasun txikiena ikustean txokora hurbildu eta beraiekin batera aritzeko aitzakiaz antzerkiko elkarrizketa euskaraz sortzen lagunduko diegu. Elkarrizketa euskaraz sortzen badute, jarduera nagusiki euskaraz izango da.
Ondorioa: arautzea tresna egokia izan daiteke.			

Egoera: bideo jokoak			
Arrazoa: beraien arteko elkarrizketak nagusiki erdaraz dira bideo jokoetan ari direnean.	Araua ez betetzearen ondorioa: erdara entzuten dugunean bideo jokoak kenduko dizkiegu.	Ondorioa betearazteko prest gaude? Bai, baina konturatzen gara tentsio nahiko handia sortuko dela une horietan.	Zailtasunen aurrean nola lagundu? Elkarrizketa oso laburrak erabiltzen dituzte eta hizkera oso informala da. Gure eragina oso mugatua da egoera horretan.
<p>Ondorioa: ez arautu. Erabileran eragin nahi badugu, hobe bideojokoen erabilera bera arautzea (noiz erabil daitezkeen edo ez) eta beste tartetean bestelako jarduera batzuetara bideratzea eta horietan erabilera sustatzea.</p>			

Gaizki erabiltzen dutenean zuzendu behar ditugu?

Ez da beharrezkoa zuzentzea eta, gehienetan, komenigarria ere ez. Euskara asko eta gustura erabiltzea nahi dugu baina behin eta berriz zuzentzen baditugu ez diegu horretan laguntzen: komunikazioa mozten diegu eta ez dute segurtasunik lortuko.

Aldiz, asko erabiltzen laguntzen badiegu errazagoa izango da euren hizkera hobetzea: eskolan landuko dute zuzentasuna eta erabilerak berak ere lagunduko die hobetzen.

Hori bai, zerbait adierazteko laguntza behar badute baliabideak eskaini: hiztegia, esaldi ereduak, hizkera informala...

Tarteka zerbait zuzentzea beharrezkoa ikusten badugu, tonua eta zuzentzeko modua zaindu: partaideak gaizki esan duena guk errepikatu baina beraiei ez errepikatu arazi, galdera itxi batean eredu egokia eskaini eta azalpena osatu asmoz zuzen esateko aukera eman, eta abar.